

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ETA GIZARTERATZEKO LEGE-PROPOSAMENAREN BALORAZIOA

2018ko maiatzaren 30a



0- SARRERA

2018ko apirilaren 27an EAJk eta PSEk Diru-Sarrerak bermatzeko eta Gizarterako lege-proposamena aurkeztu zuten. Honekin burutu da Eusko Jaurlaritzak Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) erreformari buruz proposatu zuen oinarri-dokumentuarekin hasitako prozesua; dokumentu hori azken hiletan Legebiltzarreko batzorde batean aztertu eta eztabaidatu dute hala bertan ordezkatuta dauden alderdi politikoei, nola iritzia eman duten gizarte-eragileek.

Lehen zirriborroa aski larria eta murriztailea zen, eta eskubideak mozten zituen, baina lege-proposamena bera are okerragoa da; ez du jaso ELAk, ez beste gizarte-erakundeek egindako gogoeta eta proposamenik. Haatik, hainbat kolektibok batzordeko agerraldietan emandako iritzi, hausnarketa eta proposamenak ez ziren handinahiak edota maximalistak: egungo markoaren baitakoak ziren, hau da, bideragarri, errealista eta egingarriak. Gainera, agerraldi horietan agerian geratu zen orokorra zela sistema hobetu beharri buruzko adostasuna, azken urteetan murrizketa ugari izan ondoren.

Kontua da EAEko gizarte-prestazioen inguruan erabat kontrajarritako bi alternatiba daudela. Batetik, Eusko Jaurlaritza osatzen duten alderdiena; eskubideak murrizten jarraitu nahi dute, baita pobrezia eta gizarte bazterkeria pairatzen dutenak estigmatizatzen ere. Haien proposamenak areago mugatzen du DSBE jasotzeko aukera eta 2008ko legean jasotako zenbatekoak jaisteko asmoa du. Bestalde, lege bilakatzen ditu azken urteetan erabilitako irizpide murriztaileak (Arartekoak ere gomendatu duenaren aurka) eta araudi bidez murrizketa gehiago ezartzeko atea irekitzen du.

Lege-proposamen hau kaleratu dute noiz eta Eusko Legebiltzarreko Mahaiak Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak bultzatu duen Herritar Ekimen Legegilea (HEL) tramitera onartu eta hiru egunera. HEL horren helburua da DSBE erreformatzea, zenbatekoak hobetuz eta gaur hura jaso ezin duten kolektibo batzuri eskubidea aitortuz; Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eskubide bihurtzea -orain bezala ez daitezkeen aurrekontu-kredituaren menpe geratu-, eta alokairu sozialeko etxebizitza bat okupatzeko eskubidea errealia eta eragingarria bilakatzea.

Horrenbestez, oso une garrantzitsuan gaude. Etorkizuna jokoan dugu oinarritzko kontu batean: gure jendartearen zenbateko diru-sarrera minimoak bermatu nahi ditugun, eta nortzuk duten horiek jasotzeko eskubidea. Bi aukera ditugu: HELarena, hobetzea, edota Eusko Jaurlaritzak, EAJk eta PSEk aldeztu duten murrizketen bidea.

I- EAJ ETA PSE-REN LEGE-PROPOSAMENAREN EDUKIA

EAJ eta PSEren lege-proposamenaren eduki nagusiak hauek dira:

- Etxebizitza batean ematen diren DSBE laguntzak gehienez bi izan ordez bakarra izatea, edozein direla ere bertan bizi diren bizikidetza-unitateak. Salbuespenezko bizikidetza-unitateak arautuagatik ere, hauei gehienez 24 hilabeteko muga ezarri nahi diete.
- **Zenbatekoari** dagokionez:
 - a) Pertsona bakarrarentzako DSBEaren zenbatekoa 2019tik aurrera 659,75 eurokoa izango da (egungo 644,49 euroen antzekoa). Kendu egin dute indarrean den legean ezarritako erreferentzia, Lanbidearteko Gutxieneako Soldata (LGS); honek esan nahi du izatez Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-legeetan urtez urte egin

dituzten murrizketak betikotu egiten direla. 2008ko legea aplikatuz gero 2018an DSBEaren zenbatekoa 755 euro izan beharko litzateke, lege-proposamen honetan 2019rako aipatzen den kopurua baino 100 euro gehiago.

b) Bakarrik bizi diren pentsiodunentzat DSBEa 784,88 €koa izatea proposatzen da, egungo legeak dioena baino 72 euro gutxiago (LGSaren %100, hots, 858,6 euro). Zenbateko hori 2018koa baino zertxobait handiagoa da (orain ezarritako murrizketekin 732,38 euroan dago); bi pentsiodunen kasuan, aldiz, 2018ko laguntza izoztuta geratzen da, 923,26 euroan (alabaina, 2008ko legea aplikatuz gero aurten 1.073,1 euro izan beharko lirateke).

c) DSBEaren zenbatekoa Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan erabakiko da urtero.

d) DSBEak gehienezko zenbateko bat izango du: 1.228 euro. Honek hainbat murrizketa egingo dela esan nahi du, baita egungo egoerarekiko ere. Murrizketa horiek eragin handiagoa dute lanean ari direnengan eta diru-sarrerak DSBEarekin osatzen dituztenengan.

- Prestazioa **jaso eta mantentzeko eskakizunak**- Hauetako bakarra hobetu da, **errol-datze** epea: onuradunak bere gain adin txikikoak baditu aurrez 2 urtez egon behar du errol-datuta, eta ez 3, orain bezala; gainera, errefuxiatuak eskakizun honetatik salbuetsita geratuko dira. Kontrara, beste baldintza batzuk ezartzen dira, esaterako Lanbiden araudiak agintzen duen moduan erregistratuta egotea, bizi-proiektu independentea edota onuraduna benetan non bizi den egiaztatzea (araudian ezarritakoaren arabera).
- **“Inplikazio aktiboko koefiziente”** direlakoak gehitzen dira. DSBE zenbatekoari aplikatzen zaizkion koefiziente murriztaileak dira, araudian garatuko direnak; hauen xedea da neurtzea bizikidetzaren unitateko kide guztiek zenbateko konpromisoa duten gizarteratzeko.
- DSBEaren eta **enpleguaren** arteko lotura. Lege-proposamenak hainbat kasu aipatzen du: “lan jarduera borondatez uztea, besteren kontuko lanean borondatezko baja ematea, diziplinagatiko kaleratzea, indarrean den legediaren arabeko enplegu bati uko egitea edota arrazoitutako zergatirik gabe lan eszedentzia edota lanaldi murrizketa hartzea”. Bada, hauek guztiak onuraduraren eginbeharrak ez betetzearen pareko direla esaten da eta, ondorioz, prestazioa eten egingo dela. Beraz, ELAk zirriborroaren berri izan zuenean esandakoa berretsi da: Helburua da DSBEa jasotzen dutenak derrigortzea edozein enplegu onar dezaten, gutxieneko duinak izan ala ez, bestela sistematik kanpora geratuko bailirateke.
- **Kontrol neurriak eta diziplina**- zein **zigor-erregimena** espero bezain larriak dira.
- **Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak** (GLL) aurrerantzean ere diru-laguntza gisa hartuko dira (ez dira eskubide bermatua, baizik aurrekontua izatearen arabera baldintzatutako kopuruak).
- Xedapen gehigarri batean esaten da erabiltzaileak identifikatzeko **sistema biometrikoak**, hau da, hatz-marka elektronikoak, erabiliko direla (10 hatzetako markak hartuz). Hau legezkoa ote den edo ez alde batera utzita, ELAk behin eta berriz salatu izan du langabeak eta gizarte-prestazioak jasotzen dituztenak estigmatizatzekeko neurri hau onartezina dela, duintasunaren aurkakoa izateagatik (hala adierazi du Datuen Babeserako Euskal Agentziaren lehendakariak), baita arau europarretan ezarritako irizpideen aurkakoa ere. Europar araudiak dio

horrelako sistemak aplikatzeko, hau da, erabiltzaileen xehetasun guztiak kontsultatu ahal izateko beharrezkoa dela eragindakoaren adostasun libre eta berariazkoa.

II- ONDORIOAK

Lege-proposamena aztertzean honako **ondorioak** atera ditugu:

- Berretsi egiten dugu gizarte-prestazio sistema egoki bat funtsezko oinarria dela jendartearen kohesioa bermatzeko. Prestazio sistema hau izan beharko litzateke gero eta handiagoak diren sektore behartsuenekiko konpromiso kolektiboaren zutabeetako bat.
- Gizarte-prestazioak ez dira nahikoak biztanleen beharrei erantzuteko. Eusko Jaurlaritzak berak aitortu du pobrezia errealeko egoeran dauden biztanleen %30,7ak ez duela DSBERik jasotzen. Alabaina, azken urteetan prestazioak murriztu egin dituzte, eta 2008ko legean jasota dagoenetik oso urrun geratu dira.
- Lege-proposamena oso txarra da. DSBEa jasotzeko aukerak mugatzen ditu; LGSarekiko zuen lotura deuseztatzen du, eta horrek 2008ko legearekiko atzerakada handia dakar; lege bihurtzen ditu Arartekoak salatu dituen irizpide murriztaileak; araudi bidez edonolako murrizketa berriak ezartzeko atea irekitzen du, eta hatz-marka elektronikoa ezarriz areagotu egiten du langabeen eta DSBEa jasotzen dutenen estigmatizazioa. Horren guztiaren helburua, gastua murriztu eta onuradunei jazartzea.
- Gainera, Jaurlaritzak erabaki du lege-proiekturik ez aurkeztea, horrela saihestu egiten baitu memoria ekonomikoa eta genero-eraginaren analisia, baita kontsulta tramiteak ere.
- Testuak ez du genero ikuspegiaren araberako neurririk jaso, eta horrenbestez dauden desberdintasun egoerei ezikusiaarena egiten die.
- Egia da oraingo honetan nolabaiteko parte hartze sozialen bat izan dela (Legebiltzarreko batzordeko agerraldiak), baina baita ere hori propaganda eta itxurakeria besterik ez dela izan. Lehen unetik bagenekien ekarpen asko (edo guztiak) alferrikakoak izango zirela. Gobernuko taldeek beren lege-proposamena idatzita zeukaten agerraldiak amaitu orduko, eta hauek tramite formal hutsa izan dira. Areago, ez gaitu harritu lege-proposamena zirriborroa baino okerragoa izagteak ere. Hau Gasteizko exekutiboarengan ohiko jokabidea bihurtu da.
- Aukera galdu da gizarte-prestazioen sistemak dituen benetako gabeziei aurre egiteko. Ez zaie oraindik heldu dauden kudeaketa arazo larriei.

Horregatik, ELAk:

- Eskatzen du lege-proposamena ez dadila onartu, eta geldiaraz dezatela berehala bulego batzutan hatz-marka elektronikoaren inguruan martxan jarritako prozesua.
- Kartak aurkeztu eta Eusko Legebiltzarreko Mahaiak tramitera onartu duen HELari lehentasuna ematea galdegiten du. Lege-proposamen hau sindikatuetatik eta gizarte-mugimenduetatik sortu da, eta bere zati bat DSBEari buruzkoa da. Gure ustez, bera tresna egokia da pobrezia eta gizarte-bazterkeria egoera hobetzeko.
- Gaia oso larria delako eta, esan bezala, badakigulako garrantzi handiko une batean gaudela, inoiz baino premia handiagoa da mobilizazio soziala, proposamen, alternatiba erreala, kalean dagoena.